

## FABRIKAZIO MEKANIKOAREN ARLOAN ENPLEGUA SUSTATZEKO PROGRAMA

### PROIEKTUAREN HELBURUAK:

Eibarko langabetuen enplegarritasuna sustatzea:

- Formakuntza: gaitasun pertsonalak.
- Formakuntza: (UF0878) Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioko eragiketetan makinak, tresneria eta erremintak prestatzea.
- Praktiak enpresan.
- Laneratze-prozesuan laguntza.

### BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

- 20 eta 55 urte bitartekoa izatea, eskaera egiten denean.
- Eibarren erroldatuta egotea.
- Langabezia-egoeran egon eta Lanbiden izena emanda egotea.
- Gaztelaniaren ahozko nahiz idatzizko ulermen-maila egokia izatea.
- Positiboki baloratuko da mantenu nahiz soldadura arloko esperientzia profesionala edota ezagutza izatea.

### ESKAERA EGITEKO EPEA:

2021eko otsailaren 8tik otsailaren 19ra (biak barne).

### TRAMITATZEKO BIDEAK:

- **Presentziala:** PEGORA, Herritarren Zerbitzurako Bulegoa (Untzaga plaza 1, beheko solairua). Aldez aurretik **hitzordua** hartu behar da.
- **Elektronikoa:** Udalaren [www.eibar.eus](http://www.eibar.eus) webgunearen bidez: Izapidea elektronikoki egiteko, ziurtagiri digital bat eduki behar da (B@K-Q, NAN elektronikoa, IZENPE txartela, etab.)

### AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

- Fabrikazio mekanikoaren arloan enplegua sustatzeko programan parte hartzeko eskaera behar bezala beteta. PEGORAn eta [www.eibar.eus](http://www.eibar.eus) udal webgunean dago eskuragarri.
- Eskatzailearen NANA edo horren balio bereko beste dokumenturen bat.
- LANBIDEk egindako txostena, langabe gisa inskribatuta egondako aldiei buruzkoa.
- Curriculum vitae eguneratua.
- Legezko ordezkapenaren kasuan, legezko ordezkariaren NANA edo balio bereko dokumentua eta ordezkapena dokumentu bidez egiaztatua. Egiaztapen hori, zuzenbidean baliozkotzat har daitekeen edozein bitartekoren bidez egin daiteke (notario-ahalordeak, eskriturak...).

### PROGRAMAREN GARAPENA

1. PARTE-HARTZAILEAK AUKERATZEA.
2. FORMAKUNTZA:
  - a. Konpetentzia espezifikoak; (UF0878) Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioko eragiketetan makinak, tresneria eta erremintak prestatzea (80 ordu).
  - b. Garapen pertsonaleko konpetentziak (16 ordu).
3. PRAKTIKAK ENPRESAN (40 ordu).
4. LANERATZE-PROZESUAN LAGUNTZA.